frente a la Administración, mientras no se haya formalizado el contrato.

4.- Cuando el único criterio a considerar sea el precio, se entenderá que la mejor oferta es la que incorpora el precio más bajo.

28.2.- Presentación de la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos por la licitadora que haya presentado la oferta con mejor relación calidad-precio

1.- Aceptada la propuesta de la mesa por el órgano de contratación, los servicios correspondientes requerirán a la licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, en el plazo de siete días hábiles a contar desde el envío de la comunicación, presente la documentación que se relaciona como necesaria para adjudicar el contrato.

2.- Esta documentación será la siguiente:

a) Documentos que acrediten la **capacidad de obrar y su ámbito de actividad**. Si la empresa es una persona jurídica, la capacidad de obrar se acreditará mediante la presentación de escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil cuando este requisito sea exigible según la legislación mercantil aplicable. Si dicho requisito no fuera exigible, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acta fundacional, en el que consten las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial.

   Si la empresa fuera individual, mediante la presentación del documento nacional de identidad o

documento que haga sus veces.

b) **Ordezkaritza** egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio. Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztu beharko dute, bai eta horretarako behar besteko ahalordea ere. Ordezkariak ez badu NANik, hura ordeztuko duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legeztatuta edo administrazio-organo eskudunak konpultsatuta.

b) Documentos que acrediten, en su caso, la **representación**. Las personas que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra, presentarán copia del DNI, así como poder bastante al efecto. En caso de que la persona representante no posea DNI, deberá presentar fotocopia, legitimada notarialmente o compulsada por el órgano administrativo competente, del documento que lo sustituya reglamentariamente.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du. Hala ere, ahalordea egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Si la empresa fuere persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil. No obstante, si se trata de un poder para un acto concreto no será necesaria la inscripción en el Registro Mercantil, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 94.1.5 del Reglamento del Registro Mercantil.

c) **Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala**. Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako eta ezaugarrien taulako 14. apartatuan zehaztutako bitartekoren baten bidez.

c) **Solvencia económica- financiera y técnica o profesional**. Acreditación de su solvencia económica, financiera y técnica o profesional por alguno de los medios previstos en los artículos 87 y 90 de la LCSP y que se especifiquen en el apartado 14 del cuadro de características.

Aldi baterako enpresa-elkarteetan, haien kaudimena zehazteko, elkarte horietako kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira (APKLEO, 24.1 artikulua).

En las Uniones Temporales de Empresas, a efectos de determinación de su solvencia, se acumularán las características de cada una de las integrantes de esta (art 24.1 del RGLCAP).

Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten

Las licitadoras no españolas que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el

estatuetako nazionalak diren lizitatzaileek, Espainian sailkatuta ez badaude, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, sailkapenaren ordez, SPKLren 87. eta 88. artikuluetan ezarritako moduan, eta kontratazio-organoak ezaugarrien taulako 14. apartatuan aurreikusitako bitartekoen bidez.

Espacio Económico Europeo, caso de no hallarse clasificadas en España, deberán presentar, en sustitución de la clasificación, la documentación acreditativa de su solvencia económica y financiera y técnica en la forma establecida en los artículos 87 y 88 de la LCSP, y por los medios previstos por el órgano de contratación en el apartado 14 del cuadro de características.

d) Kontratuaren xede den prestazioa egiteko **enpresa- edo lanbide-gaikuntzaren** egiaztagiria. Kontratatzeko gaitasun gisa legez eska badaiteke, kontratu honen xede den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egokia egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

d) Acreditación de la **habilitación empresarial o profesional** para la realización de la prestación objeto del contrato: Si resulta legalmente exigible como condición de aptitud para contratar, deberá aportarse la documentación que acredite la correspondiente habilitación empresarial o profesional para la realización de la prestación que constituye el objeto del presente contrato.

e) **Baliabide pertsonalak eta materialak** badituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, ezaugarrien taulako 15. apartatuan adierazitako profil eta zehaztapenekin.

e) La aportación de la documentación justificativa de que dispone efectivamente de los **medios personales y materiales** con los perfiles y especificaciones que se indican en el apartado 15 del cuadro de características.

f) Kaudimena **kanpoko baliabideen bidez** egiaztatzeko (SPKL, 75. art.), kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material horiek benetan badituela frogatu beharko da, kanpoko erakundeek konpromisoa idatziz aurkeztuta.

Lizitatzaileak bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen baliabide berberekin gauzatuko du kontratua. Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik

f) La acreditación de la **solvencia mediante medios externos** (art.75 de la LCSP), exigirá demostrar que para la ejecución del contrato dispone efectivamente de esos medios humanos y materiales mediante la presentación del compromiso por escrito de las entidades externas.

La licitadora ejecutará el contrato con los mismos medios que ha aportado para acreditar su solvencia. Solo podrá sustituirlos, por causas imprevisibles,

soilik ordeztu ahal izango ditu, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuekin eta Administrazioaren baimenarekin.

por otros medios que acrediten solvencia equivalente y con la correspondiente autorización de la Administración.

g) Ingurumena kudeatzeko eta kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, ezaugarrien taulako 14. apartatuan hala aurreikusten bada, eta bertan adierazitakoaren arabera.

g) Certificados de cumplimiento de las **normas de gestión medio ambiental y de garantía de la calidad**, si así se prevé en el apartado 14 del cuadro de características, y conforme a lo allí indicado.

h) **Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela** egiaztatzen duten ziurtagiriak. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

h) Certificados acreditativos de **encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social**. En el caso de que la licitadora deba tributar en varios territorios, deberá aportar los certificados emitidos por todas y cada una de las Administraciones competentes.

i) **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari** lotutako jarduerak egiten direnean: uneko ekitaldiko alta edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

i) Cuando se ejerzan actividades sujetas al **Impuesto sobre Actividades Económicas**: alta referida al ejercicio corriente, o último recibo, junto con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado Impuesto y, en su caso, declaración responsable de encontrarse exento.

j) **Behin-betiko bermea** eratu izanaren egiaztagiria.

j) El justificante de la constitución de la **garantía definitiva**.

2.- Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkezteak enpresa lizitatzailea salbuetsiko du, bertan jasotakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, erregistroan jasota dauden inguruabarren egiaztagiriak aurkeztetik.

2.- No obstante lo anterior, la presentación del certificado de inscripción en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco dispensará a la empresa licitadora, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, de presentar los documentos acreditativos de las circunstancias cuya inscripción consta en el registro.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa

La presentación del certificado de inscripción

Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeko ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público tendrá los efectos previstos en los artículos 87.2 y 96 de la LCSP y en el 19 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la LCSP.

Ziurtagiriekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotakoa ez dela aldatu adierazten duena.

Los certificados deberán acompañarse de una declaración responsable en la que se manifieste que las circunstancias reflejadas en el certificado no han experimentado variación.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzioan egiaztatu beharreko baldintzaren bat agertzen ez bada, enpresak SPKLn aurreikusitako bitartekoren baten bidez justifikatu beharko ditu.

Cuando en la inscripción del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas no conste alguno de los requisitos que deba acreditar, la empresa deberá justificarlos por alguno de los medios previstos en la LCSP.

3.- Aurreko bi apartatuetan aipatutako agiriak ezarritako epean behar bezala aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa.

3.- De no cumplimentarse adecuadamente, y en el plazo establecido, la presentación de la documentación a que se hace referencia en los dos apartados anteriores se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 % del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera (SPKLren 150.2 artikulua).

En el supuesto señalado en el párrafo anterior se procederá a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas (art. 150.2 de la LCSP).

4.- Lizitatzaileak klausula honetan ezarritakoa epe barruan betetzen ez badu doloa, errua edo zabarkeria dela medio, kontratatzeko debekua duela deklaratu ahal izango da, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.- La licitadora que no cumplimente lo establecido en esta cláusula dentro del plazo señalado mediando dolo, culpa o negligencia podrá ser declarada en prohibición de contratar según lo previsto en el artículo 71.2 a) de la LCSP.

29.- BEHIN BETIKO BERMEA

29.- GARANTÍA DEFINITIVA

1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak, SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren alde.

1.- La licitadora que presente la mejor oferta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 145 de la LCSP, deberá constituir a disposición del órgano de contratación una

Zenbatekoa izango da lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren %5 edo, kontratua unitateko prezioen arabera egiten denean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %5, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta. Berme honen eraketa hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

garantía definitiva. Su cuantía será igual al 5% del importe del precio final ofertado por la licitadora o del presupuesto base de licitación cuando el contrato se formule en función de precios unitarios, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido. La constitución de esta garantía deberá ser acreditada en el plazo de diez días hábiles a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento del artículo 150.2 de la LCSP.

2.- Ezaugarrien taulako 18. apartatuan ageri den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta HAKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du esleipena bere alde egingo.

2.- La garantía definitiva que figura en el apartado 18 del cuadro de características podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en los artículos 108 de la LCSP y 55 y siguientes del RGLCAP. De no cumplirse este requisito por causas imputables a la empresa adjudicataria, la Administración no efectuará la adjudicación a su favor.

3.- Berme horren gainean ordaintzen badira kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak, berme hori birjarri edo handitu egin beharko du kontratistak, exekutatu eta hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazi egingo da.

3.- En caso de que se hagan efectivas sobre esta garantía las penalidades o indemnizaciones exigibles a la contratista, esta deberá reponer o ampliar aquella en la cuantía que corresponda en el plazo de quince días naturales desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.

4.- Kontratua aldatu delako prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia esleipendunari jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean. Aldatu den prezio berriarekiko proportzio egokia gorde beharko da.

4.- Cuando como consecuencia de una modificación del contrato experimente variación su precio, deberá reajustarse la garantía en el plazo de quince días naturales contados desde la fecha en que se notifique a la adjudicataria el acuerdo de modificación, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado.

5.- Nolanahi ere, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea kontratuaren xede diren prestazioak behar ez bezala gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan

5.- En todo caso, la garantía definitiva responderá de los conceptos a que se refiere el artículo 110 de la LCSP. Dentro de dichos conceptos se incluye el incumplimiento por parte de la contratista de la obligación de indemnizar los daños y perjuicios ocasionados a terceras personas como consecuencia de la incorrecta ejecución de las prestaciones objeto

aurreikusitakoa.

6.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako 18. apartatuan xedatutakoa beteko da.

30.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

1.- Kontratazio-organoak 28.2 klausulan aipatzen den dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua.

2.- Ezin izango da lizitazio bat esleitu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

3.- Esleipen-ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta enpresa esleipendunari jakinaraziko zaio; kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da hamabost eguneko epean.

4.- Aurreko apartatuan aipatzen den jakinarazpenak eta publizitateak behar den informazioa jasoko dute adjudikazio-prozeduran interesa duten pertsonek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jarri ahal izateko, eta, bereziki, SPKLren 151.2 artikuluan eskatzen dena.

31.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

1.- Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-agiri batean formalizatu beharko da, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikoetarako. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du kontratistak, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere

del contrato, prevista en el artículo 196 de la LCSP.

6.- La garantía complementaria se establecerá de conformidad con lo previsto en el artículo 107.2 de la LCSP, y se estará, en su caso, a lo dispuesto en el apartado 18 del cuadro de características.

30.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

1.- El órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación a la que se refiere la cláusula 28.2.

2.- No podrá declararse desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego.

3.- La resolución de adjudicación deberá ser motivada y se notificará a la empresa adjudicataria, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de quince días.

4.- La notificación y la publicidad a que se refiere el apartado anterior contendrá la información necesaria que permita a las personas interesadas en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, y en particular la exigida por el artículo 151.2 de la LCSP.

31.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

1.- El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, la contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso, se

sartu esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.

2.- Kontratua formalizatzearekin batera burutuko da, eta ezin izango da inola ere hasi kontratua exekutatzen aldez aurretik formalizatu gabe.

2.- El contrato se perfecciona con su formalización y en ningún caso podrá iniciarse la ejecución del contrato sin su previa formalización.

3.- Adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, honako hauek aurkeztu beharko ditu: eraketaren eskritura publikoa, esleitutako IFK eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren izendapena.

3.- Si la adjudicataria fuera una Unión Temporal de Empresas, deberá presentar escritura pública de su constitución, CIF asignado y nombramiento de la persona representante con poder suficiente.

4.- Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badaiteke, formalizazioa ezin izango da egin lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

4.- Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las licitadoras.

Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio adjudikaziodunari, gehienez ere bost egun naturaleko epean formaliza dezan kontratua, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igarota kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu ez bada. Modu berean jokatuko da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia kentzen duenean.

El órgano de contratación requerirá a la adjudicataria para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.

5.- Gainerako kasuetan, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua.

5.- En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse en el plazo máximo de quince días hábiles contados desde el siguiente al de la recepción por la adjudicataria de la notificación de la adjudicación.

6.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa, eta, lehenik eta behin,

6.- Cuando por causas imputables a la adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3 % del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de

behin betiko bermearen aurka ordainduko da, eratu bada, hargatik eragotzi gabe kontratatzeko debekuaren eraginpean dagoela deklaratzea, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de que pueda ser declarada incursa en prohibición de contratar, según lo previsto en el artículo 71.2.b) de la LCSP.

7.- Kontratuaren formalizazioari buruzko publizitatea emango da, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- De la formalización del contrato se dará publicidad según lo dispuesto en el artículo 154 de la LCSP.

III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA

CAPÍTULO III - EJECUCIÓN DEL CONTRATO

32.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

32.- RESPONSABLE DEL CONTRATO

1.- Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Hark gainbegiratuko du nola gauzatzen den kontratua, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko.

1.- El órgano de contratación designará a una persona responsable del contrato, a la que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.

Era berean, kontratuaren arduradunak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera. Horiek kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira, edo, une horretan hori ezinezkoa bada, geroagoko ebazpen batean.

Asimismo, la persona responsable del contrato podrá contar con personas colaboradoras, en función de títulos profesionales o conocimientos específicos, que serán identificadas en la misma resolución de adjudicación del contrato o, si ello no resultara posible en dicho momento, en otra posterior.

Kontratuaren arduraduna enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea da.

La persona responsable del contrato es la persona interlocutora entre la empresa adjudicataria y el órgano de contratación.

2.- Beren eginkizunak betetzeko, arduradunak eta harekin lankidetzan aritzen direnek sarbide librea izango dute kontratuaren objektuaren prestazio egiten den lekuetara, eta egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak badira kontratuaren objektua diren prestazioak emateko.

2.- Para el ejercicio de sus funciones, la persona responsable y quienes colaboren con ella tendrán libre acceso a los lugares de prestación del objeto del contrato y podrán realizar las inspecciones que consideren oportunas, siempre que dichos emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato

Era berean, egokitzat jotzen duten informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren objektua behar bezala gauzatzeko eta hura gauzatzean gerta daitekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezkoak diren bilerak sustatu eta deitu ahal izango dituzte.

Asimismo, podrán solicitar la información y documentación que estimen oportuna y promover y convocar las reuniones que resulten necesarias para la adecuada ejecución del objeto del contrato y para solucionar cualquier incidente en su ejecución.

3.- Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibide egokiak. Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:

3.- La persona responsable del contrato establecerá las directrices oportunas. En particular, le corresponden las siguientes funciones:

a) Exekuzioa kontratuaren baldintzetan eta aurreikusitako iraupen-epean egiten dela egiaztatzea. Funtzio honek aukera emango du kontratuaren kalitate-baldintzak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen diren egiaztatzeko beharrezkoak diren ekintzak garatzeko.
b) Edozein motatako ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari eta, hala dagokionean, honako hauek proposatzea: zigorrak ezartzeko prozedura hastea, kontratua etetea, kontratua suntsiaraztea eta beste neurri batzuk hartzea kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko edo administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragindako kalte-galeren ordaina emateko.
c) Kontratuan beharrezkoa den edozein aldaketa gomendatzea, hala nola espezifikazioak, jarraibideak edo eragiketa eraginkorragoak eskaintzen dituzten beste baldintza batzuk.
d) Kontratuari atxikitako giza baliabideen edo baliabide materialen aldaketen berri ematea, kontratua aldatzea ez dakarten kasuetan.
e) Luzapenen beharra eta bidezkotasuna

a) Comprobar que la ejecución se lleva a cabo en los términos del contrato, y en el plazo de duración previsto. Dicha función posibilitará desarrollar las acciones necesarias para verificar si se cumplen los requisitos de calidad del contrato y las cláusulas sociales, medioambientales, de tipo social e innovadoras.
b) Informar al órgano de contratación sobre los incumplimientos de cualquier clase y, cuando corresponda, proponer el inicio del procedimiento de imposición de penalidades, la suspensión del contrato, la resolución del contrato y la adopción de otras medidas para garantizar el correcto cumplimiento del contrato o para resarcir a la Administración de los daños y perjuicios que provoque el incumplimiento de la empresa contratista.
c) Recomendar cualquier cambio necesario en el contrato, como especificaciones, instrucciones u otros requisitos que proporcionen operaciones más eficaces.
d) Informar sobre la alteración de medios humanos o materiales adscritos al contrato en aquellos supuestos que no supongan modificación del mismo.
e) Informar y motivar la necesidad y

jakinaraztea eta arrazoitzea.

f) Enpresa kontratistak azpikontratistei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea, hala badagokio.

procedencia de prórrogas.

f) Comprobar, en su caso, que la empresa contratista cumple con su obligación de pago a las subcontratistas.

33.- KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA

1.- Enpresen edo horien jarduera-adarren bat-egite, zatiketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, kontratuak aurrera jarraituko du kontratua esleitzen zaion erakundearekin, eta kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkartea bada, SPKLren 69.9 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

2.- Kontratistak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Administrazioari bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa, eta dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa eten egingo da aldaketa horiek egiaztatzen diren arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada, kontratua esleitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi beharreko kasutzat hartuko da ondorio guztietarako.

33.- SUCESIÓN EN LA PERSONA DE LA CONTRATISTA

1.- En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato con la entidad a la que se atribuya el contrato, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se cumplen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la LCSP. Cuando la contratista sea una unión temporal de empresas se estará a lo establecido en el artículo 69.9 de la LCSP.

2.- La contratista deberá comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previstos para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifiquen los mismos.

3.- Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la adjudicataria.

34.- KONTRATUA LAGATZEA

1.- Pertsona edo enpresa esleipendunak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, baldin eta pertsona edo enpresa horren ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan, eta lagapenak ez badu merkatuko lehia benetan murrizten.

34.- CESIÓN DEL CONTRATO

1.- Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por la persona o empresa adjudicataria a una tercera persona siempre que sus cualidades técnicas o personales no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado.

2.- Kontratistak bere eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio-organoak lagapena berariaz eta aldez aurretik baimentzea.
b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez %20 gauzatuta izatea.
c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratatzeko gaitasuna izatea eta kontratuaren exekuzio-fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea, eta kontratatzeko debekurik ez izatea.
d) Lagapena eskritura publiko bidez formalizatzea enpresa adjudikaziodunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen artean.

2.- Para que la contratista pueda ceder sus derechos y obligaciones a terceras personas deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la cesión.
b) Que la cedente tenga ejecutado al menos un 20 % del importe del contrato.
c) Que la empresa cesionaria tenga capacidad para contratar y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato y no estar incursa en una causa de prohibición de contratar.
d) Que la cesión se formalice, entre la empresa adjudicataria y la empresa cesionaria, en escritura pública.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

3.- La cesionaria quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones que corresponderían a la cedente.

35.- ENPRESA KONTRATISTAREN BALDINTZA OROKORRAK ETA BETEBEHARRAK

35.- CONDICIONES GENERALES Y OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONTRATISTA

1.- Kontratua gauzatzeko, zorrotz bete beharko dira agiri honetan ezarritako klausulak, baldintza teknikoen agiria eta kontratuaren arduradunak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak.

1.- El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en este pliego, al pliego de prescripciones técnicas y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación, diera a la contratista la persona responsable del contrato.

2.- Adjudikazioduna izango da zerbitzuaren xede diren prestazioen kalitatearen erantzulea, bai eta kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzulea ere.

2.- La adjudicataria será responsable de la calidad de las prestaciones objeto del servicio, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceras personas de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak ekipamendu eta giza baliabide egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta une oro erantzun

3.- La persona o empresa contratista deberá prestar el servicio con el equipo y medios personales adecuados, respondiendo en todo

beharko die lanen martxaren ondoriozko beharrei. Proposamenean jasotako baliabide teknikoak ere emango ditu, eta, oro har, lanak behar bezala egiteko behar diren guztiak.

momento a las necesidades que se deriven de la marcha de los trabajos. Aportará también los medios técnicos incluidos en su propuesta y, en general, cuantos se precisen para la buena ejecución de los trabajos.

4.- Kontratistak, nolanahi ere, ezaugarrien taulako 25. atalean zehaztutako aseguruak izan beharko ditu. Enpresa esleipendunak kontratu horien kopiak aurkeztu beharko ditu, bai eta kontratua sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagirien kopiak ere.

4.- La contratista deberá disponer, en cualquier caso, de los seguros especificados en el apartado 25 del cuadro de características. La empresa adjudicataria deberá aportar copias de dichos contratos, así como copias de los últimos recibos abonados con carácter previo a la firma del contrato.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte-galerak, bai eta poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasun eta arriskuak ere.

En todo caso, serán soportados por la empresa adjudicataria los daños y perjuicios en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos por las mismas.

5.- Administrazioak erabakiko du kontratistak egindako prestazioa kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin bat datorren, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta prestazioak jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, egindako lanak ez bazaizkio kontratatutako prestazioari egokitzen, uko egin ahal izango dio, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du, hala badagokio.

5.- La Administración determinará si la prestación realizada por la contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, requiriendo, en su caso, la realización de las prestaciones contratadas y la subsanación de los defectos observados con ocasión de su recepción. Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables a la contratista, podrá rechazar la misma quedando exenta de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei, prozesu horiek amaitu arte.

6.- Las empresas que concurran a la licitación aceptan voluntariamente dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución hasta su finalización.

36.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

36.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO

1.- Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza

1.- Todas las condiciones especiales de

berezi guztiak eskatuko zaizkie, era berean, kontratua egikaritzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak dira honako hauek:

36.1.- Laneko, gizarteko eta ingurumena babesteko betebeharrak

1.- Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, laneko segurtasun eta osasunaren arloan eta ingurumena babestearen arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak, bai eta baldintza-agiri hauetan ezartzen direnak ere.

2.- Kontratistak enpresa kontratistaren jarduera kokatzen den sektoreko eremu baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako lan-baldintzak aplikatuko dizkie kontratua egikarituko duen plantillari, hargatik eragotzi gabe hartan xedatutakoa hobetzen duten eta indarrean dauden beste enpresa-hitzarmen edo -itun batzuk.

3.- Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu hitzarmen kolektibo aplikagarria kontuan hartuta, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerragotu; nahiz eta aurrerago hitzarmen horren indarraldia amai daitekeen, lan hitzarmenen indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez. Obligazio hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– berehalako unean hitzartuta zegoen orduko soldata mantentzen bada. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez.

ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todas las subcontratistas que participen de la ejecución del mismo.

2.- son obligaciones especiales de ejecución las que se detallan a continuación:

36.1.- Obligaciones laborales, sociales y de protección del medio ambiente

1.- La contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes, que resulten de aplicación en materia laboral, de seguridad social, de seguridad y salud en el trabajo y de protección del medio ambiente, así como aquellas que se establezcan en estos pliegos.

2.- La contratista aplicará a la plantilla que ejecutará el contrato las condiciones de trabajo establecidas por el último convenio colectivo sectorial del ámbito más inferior existente en el sector en el que encuadra la actividad de la empresa contratista, sin perjuicio de otros convenios o pactos de empresa que estuvieran en vigor y mejoren lo dispuesto en aquel.

3.- Durante todo el periodo de ejecución del contrato, la empresa contratista está obligada a mantener las condiciones de trabajo del personal adscrito al contrato en función del convenio colectivo que resulte de aplicación, no empeorando las mismas; y ello con independencia de que tal convenio pueda posteriormente perder su vigencia en aplicación de las previsiones legales o convencionales sobre finalización de la vigencia de los convenios colectivos. La obligación se entenderá cumplida si se mantienen las condiciones laborales vigentes en el momento inmediatamente anterior a aquel en que, en su caso, se produzca la pérdida de vigencia. En todo caso, se entenderá igualmente cumplida la obligación

Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratistak egoera hori egiaztatzeko behar den informazio edo dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio organoari.

del mantenimiento de las condiciones laborales si estas hubieran variado por acuerdo alcanzado entre la empresa contratista y la representación de los trabajadores y las trabajadoras, si bien en ningún caso las condiciones salariales pueden ser inferiores a las establecidas en el convenio colectivo sectorial aplicable. La contratista vendrá obligada a facilitar al órgano de contratación cualquier información o documentación que le sea requerida para acreditar este extremo.

4.- Kontratistak zehaztu beharko du kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko dien. Horretarako, kontratua adjudikatu ondoren, kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

4.- La contratista deberá indicar el convenio colectivo que será de aplicación al personal que realice la actividad objeto del contrato. A tal efecto, tendrá la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

5.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, baldin eta adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari. Komunikazio horretan negoziazioari buruzko justifikazio dokumentazioa agertu beharko da, bai eta lan baldintza berrien edukia, aldaketa horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

5.- Cualquier modificación en las condiciones laborales del personal adscrito que afecte a las establecidas por el convenio colectivo aplicable en el momento de la adjudicación, deberá ser comunicada previamente al órgano de contratación. La comunicación deberá contener la documentación justificativa de la negociación y el contenido de las nuevas condiciones laborales y su repercusión económica inmediata y futura en la estructura de costes del contrato.

6.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela.

6.- En caso de subcontratación, la empresa subcontratista deberá igualmente cumplir con lo dispuesto en esta cláusula. La empresa contratista comprobará, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la seguridad social de los trabajadores y las trabajadoras de las empresas con las cuales subcontrate.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea

7.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad

zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquel se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.

36.2.- Kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileei buruzko betebeharrak

1.- Adjudikaziodun gisa proposatutako enpresak aurkeztu behar du, kontratatutako jarduerari hasiera eman aurretik, kontratua egikaritzera bideratutako langileen zerrenda, eta, aldi berean, egiaztatu beharko du haiek Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela.

Horren ordez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, data horretan kontratua egikaritzen arituko diren langileak kontratupean ez izanari buruz eta haiek kontratatzen dituenean haien guztien afiliazio eta alta egiaztatzeko konpromisoari buruz, hori guztia kontratupeko jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresak eraginpeko langileak ordezkatzea proposatzen badu, proposatutako langile berriek esleipenean kontuan hartu eta baloratu diren irizpide berberak bete beharko dituzte. Langile horiek ordezteko, kontratazio-organoak eman beharko du baimena.

3.- Kontratua azkentzean, kontratistaren langileak ez dira inola ere finkatuko erakunde kontratatzailearen langile gisa.

4.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea

36.2.- Obligaciones relativas al personal afecto a la ejecución del contrato

1.- La empresa propuesta como adjudicataria, con carácter previo al inicio de la actividad contratada debe aportar la relación del personal que destinará a la ejecución del contrato y acreditar su alta y afiliación en la seguridad social.

Alternativamente, debe aportar una declaración responsable por donde declare no tener contratadas a esa fecha las personas que se ocuparán en la ejecución del contrato y que acreditará la afiliación y alta de todas ellas cuando las haya contratado y siempre con carácter previo al inicio de la actividad contratada.

2.- Cuando la empresa proponga la sustitución del personal afecto, el nuevo personal propuesto deberá cumplir los mismos criterios tenidos en cuenta y valorados durante la adjudicación. La sustitución de este personal deberá ser autorizado por el órgano de contratación.

3.- A la extinción del contrato, en ningún caso se producirá la consolidación del personal de la contratista como personal de la entidad contratante.

4.- En el supuesto de que la empresa contratista, por incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente

zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

cláusula por parte de la entidad contratante, fuera sancionada a asumir las consecuencias económicas derivadas de dicho incumplimiento, repercutirá las mismas en la contratista. A tal efecto, la Administración contratante tendrá derecho a realizar las actuaciones administrativas o judiciales que sean necesarias hasta recuperar la totalidad de la cantidad abonada.

36.3.- Subrogazio-kasuetako betebeharrak

1.- SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako informatzeko betebeharra aplikatuz, ezaugarrien taulako 26. apartatuan subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa ematen da, enpresa lizitatzaileek kontratuaren adjudikaziodun izango diren benetako lan-kostuen ebaluazio egokia egin ahal izan dezaten.

36.3.- Obligaciones en supuestos de subrogación

